

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

315 - 2023ko UZTAILA

PUNTTUKA
INTEGRAZIOA JOSTEN



POSTONTZIA

✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

2

ZUZEN ETA JATOR

EUSKARA

Belarria ebaki ala moztu?

Ebaki eta moztu aditzak sinonimoak dira adiera batzuetan, baina ez guztietan.

Moztu = ebaki. Kasu hauetan:

- ▶ Lanabes zorrotz baten bidez, zerbait, osatzen duen beste zerbaitetik bereizi. Adibidez: *Haritzak ebaki/moztu zituen. Belarra ebaki/moztu dugu. Hegoak ebaki/moztu banizkio.*
- ▶ Lanabes zorrotz baten bidez, zerbaiten jarraitutasuna eten, zerbait bereizi edo zatitu. Adibidez: *puskatan moztu, ogia ebaki, adarra erditik moztu.*
- ▶ Zerbait eten. Adibidez: *irratsaioa moztu, kartak ebaki, hitza moztu, itsasontziak ura ebaki.*

Moztu ≠ Ebaki.

Adiera hauetan, **EBAKI** erabiliko dugu:

1. Zauria egin. Adibidez: *Labanarekin besoa ebaki zion.*
2. Ahoskatu. Adibidez: *Esaldiak ongi ebakitzen ditu.*
3. Matematikan. Adibidez: *Elkar ebakitzen duten bi zuzen.*

Honako hauetan, berriz, **MOZTU** erabiliko dugu:

1. Lanabes zorrotz baten bidez, zerbaiti muturra edo goiko zatia ebaki. Adibidez: *ilea moztu, azazkalak moztu.*
2. Landareez mintzatuz, inausi, kimatu. Adibidez: *adarrak moztu, arrosa-landareak moztu.*

Eta kafea, beti ebakia; inoiz ez moztua!



ikaaraitz-betelu

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:
Mailope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza, Haritz Larrageta eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Juan Antonio Garaikoetxea, Guratz Azpiroz, Manex Torrado, Aitor Perez Mangado, Putas amak, J.K Zubieta, Mikel Betelu, Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Uztaileko zorion agurrak

08 ▶ ELKARRIZKETA

Lorea Etxarri Urtasun



12 ▶ BATZARRE

14 ▶ ERREPORTAJEA

Hatz-mamiez, punttuka, euskaraz irakurtzen ikasten



18 ▶ ELKARRIZKETATXOA

Aitor Perez Mangado



20 ▶ ERREPORTAJETXOA

Beteluko San Pedro Jaiak

22 ▶ KULTURA

24 ▶ KIROLA

25 ▶ MAITE DITUT MAITE
Malloen lehenengo sei tontorren buelta

28 ▶ PLAZATIK PLAZARA
"Lehen mailako" fisioterapia
Lekunberrin



31 ▶ AGENDA

Jare Elordi Azurmendi

ZORIONAK ETA URTE
ASKOTARAKO JARE!!!

Ekainaren 4an lenengo
urtetxoa egun digu gure
etxeko printzesak! Asko
maite zaitugun familia
guztiaren partez ongi
pasa zure eguna, muxu
haundi bat!

**Iraia Elordi Sanz**

Uztailaren 18an, 4 urte.

Zorionak printzesita!
Egun polita pasa zure
urtebetetze egunean
familia guztiaren partetik!

Muxu haundi bat!

**Eneko Etxeberria Arguiñarena**

Uztailaren 12an, 3 urte:

Zorionak pottoko! Haunditzen ari dela
etxeko txikia! Egun bikaina pasa, eta
muxu erraldoi bat Ane, aitaxo, amatxo
eta familia guztiaren partez

**Markel Etxeberria Etxarri**

Uztailaren 22an 5 urte

Zorionak!! Esku osoa beteta!!
Segi bizitzaz gozatzen!
Muxu erraldoi bat

Mailope aldiakaria zorion agurrak jasotzeko irrikari dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31
Lekunberri

GORA TX. **MALLOAK** BEHERA

ARTZAI GAZTAK

Granja Martikonea, GAINITZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + Iosune, 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labeen egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza



IRUÑEKO HILKETA MATXISTAREN KONTRAKO ELKARRETARATZEAK

Arribeko surtidorearen eta Larraungo udaletxearen aurrean elkarretaratzeak egin ziren uztailaren 3an, Iruñean bi egun lehenago gertatu zen hilketa matxista gaitzesteko. Eraildako 47 urteko emakumea, urte erdian, Euskal Herrian indarkeria matxistak hildako laugarrena da.



ETXEPARE SARIA EMAN GABE GERATU DA AURTEN

Aurten, album ilustratuen lehiaketara 26 lan aurkeztu badira ere, tamaina horretako sari bati dagokion mailara iritsi ez direla iritzita, eman gabe geratuko da Etxepare. Epailerek oso kalitate oneko testuak eta ilustrazioak baloratu dituzte, baina, tamalez, ez dute ikusi alderdi bietan maila hori erakutsi duen lanik.



MASKARADA: NAFARROAKO GASTRONOMIA AKADEMIAREN SARIA

Urtero Nafarroako Gastronomia Akademiak ematen duen Gastronomia saria jaso du, hamabosgarren edizio honetan, Lekunberriko Maskaradak. Ekainaren 13an Iruñean egindako ekitaldian, proiektuaren iraunkortasuna eta 0 km-aren alde egindako apustua goraiatu ziren.

5

► Aitor Goikoetxea (Betelu)



*Joseba zu zara anai
bertsoa da aukera bai
nire barrua mintzagai
ateratzeko prest da ai
Ematen zuena izango dena
ustek uste ta ni zai
Ate bat itxi beste bat iki
bidegurutzean zernahi
Konfiantza izan ta borrokatu
hori da nire sendagai
lortutakoaz harro egotea
izan dadila asegai*

Doinua: Baneza eta banitu. Hurrengoa: Xabi Sotil (Betelu)

TA SEGI AURRERA!

Beste urte bat bete berri du Printzak iraultzaren argi izpia indartuz, laugarrena jada!

Ikasturte oparoa izan da hau ere. Gizarte injustu honi aurre egin eta zapalduon arteko elkartasuna indartuz, aurrerapausoak emanez darraigu. Hitzez esandakoa sinesgarria izan dadin, ekintzekin frogatu beharra dago eta oztopoak oztopo, eta zeresanak zeresan, Printzak egindako ibilbidea ezabaezina izango da. Borondate ona justizira bidean jartzeko, ikasketa prozesuak garatu eta praktikara eraman ditugu. Bizi dugun errealitate kapitalista eta egoera ezberdinak gordintasunez ulertzeak gainera, gure konpromezua sendotzen du.

Jende zoragarria izaten ari gara bidelagun. Borroka esperientzia ugari ezagutzeko aukera izaten ari gara hitzaldi, mahai inguru eta dokumentalen bidez. Aisialdi zein kultur eskaintzari dagokionez, gozatu ederrak hartzen ari gara ekarpen ugari eta aberasgarriekin. Elkartasuna gauzatzeari begira aldiz, hamaika ekimen daramatzagu aurrera egitarau publikoetan zein egitarautik kanpo.

Laugarren urtearen balantze labur bat eginez, Laxarori agur esan beharra etorri zitzaigun ezustean. Eman digun eredia presente edukiko dugu eta hainbeste animo bidali izan dizkigun Garikoitz Etxeberria preso politiko Lizartzarrari ere, gogor eusteko erakusten ari den kuraia eskertu nahi genioke. Urteroko zita seinalatuei dagokienez, gure ekarpenak egiten jarraitu dugu festa, kinto, Larraungo egun eta abarretan, baina nola ahaztu orain arte bizi izan dugun zita jendetsuena: Lehendakaris Muertos eta konpainiaren emanaldi berezia.

Gainontzean proiektuaren ohiko martxari bultzada ematera datozen artista, norbanako zein kolektiboekin

txundituta darraigu. Miresgarria da bakoitzak bere onena eskainiz kontzientzia sozialean eragiteko daukan gaitasuna eta horretarako baldintzak sortzen segituko dugu. Era berean datozkigun erronketarako prest egoteko deia luzatzen dugu. Gasbidearen inposaketari ez! Langile kontrolpeko espazioak aurrera!

PRINTZA

MENDIALDEKO ELKARTEEI ZUZENDUTAKO IDATZIA

Habelarte, Mendialdeko baserriar elkartetik zuengana zuzentzen gara, mezu hau zuen kideen artean zabaldu eta gure ekimenarekin bat egingo duzuelakoan.

Leitzako Atekabeltz gaztetxean herriko jaietan, urte askotan, jantokia jarri izan da herritar desberdinen artean.

Lehenengo urtean ez zen aurrera eraman eta hutsune hau betetzeko erronka hartu dugu aurten. Auzolanean egiten den herri ekimen hau baliatuz gure aldarrikapenak kalera atera, herritarrei zerbitzua eman eta dirua biltzeko asmoa dugu.

Elikadura burujabetza eta zaintza (elkar zaintza, ingurumenaren zaintza) ditugu gure lanaren ardatz eta abuztuak 10etik 15era Atekabeltzen mendialdeko baserriarrok ekoizten ditugun elikagaiekin jateko sana eskainiko dugu, prezio justu batean. Gure eskeintzan hauek egonen dira:

IORTIA CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Hanburgesak: Begetala, txekor haragiarekin eginak
Osagarriak: Gazta, letxuga, tomatea eta tipula potxatua.

Pizza:

- Begetala: Gazta, tomatea, tipula, piperrak, onddoak/txanpiak eta oreganoa.
- Haragia: Gazta, tomatea, betizu haragi pikatua eta oreganoa.

Bokadilloak: Xolomoa Basatxerri, hirugarrea eta barazki onddo rebueltoa.
Osagarriak: Gazta eta piperrak.

Platerak: Gazta kata, txorizo kata eta gindillak.

Taloak: Hirugarrea eta gazta, piperrekin edo menbrilloarekin.

Ardoa, Sagardoa eta Ura

Habelarte elkartearen mendialdeko baserriar desberdinek osatzen dugu, lurretik eta lurarentzat bizi nahi dugunak. Janari plastifikatua eta industrialia gailentzen ari den garai hauetan, erronka ez bada erraza ere. Ditugun errekurtoak ingurumena, biodibertsitatea eta natura modu egokian zainduz aprobetxatzeko baserriar eta ekoizle txiki asko behar ditugu eta herri txikiak bizirik. Horretarako herritar guztien parte hartze aktiboa eta konpromezua ezinbestekoa dugu.

Batu zaitez gure borrokara eta parte gure ekimen honetan zuen kideen artean gonbidapen hau zabalduz eta bertan bertakoa jatera animatuz.

**2023ko ekainaren 22an
JAIETAN ERE IZAN BURUJABE!**

HABELARTE, Medialdeko baserriar elkartearen

AIO, IÑAKI

Euskaltzalea, kritikoa eta jantzia, hala gogoratzen dugu Mailopen Iñaki Usabiaga. 87 urterekin zendu zen joan den maiatzaren 26an minbizia baten ondorioz, baina azkenera arte lanean jarraitu zuen. Irakaslea, itzultzailea eta hainbat hedabidetan kolaboratzaile ibilia zen. Jakin-min handiko pertsona zen eta gizarteari bere ekarpena egiteko gogo amaigabea zuen. Hamaika proiektu zituen beti eskuartean eta seriotasunez eta konpromiso handiz betetzen zituen denak. Hala jardun zuen ere gurean 'Luze eta Zabal' ataleko kolaboratzaile izan genuenean. Zaldibian jaioa zen eta apaiz ikasketak egindakoa zen. Bere buruaz hitz egiten zuenean harro kontatu ohi zituen bere bizitzan hartutako erabaki horiek: "Ni apaizetarako nindoan, Karmen ezagutu nuen arte". Gero Lasarten sortu zuen bere familia eta bertan egin zioten azken agurra, baina Lekunberrin ere bere omenezko meza ospatu zen. Izan ere, azken urte luzeetan Lekunberri bere bigarren bizileku bilakatu zuen. Alde Zaharreko Marigorritenean gustura bizi zen. Etxeko ganbaran zuen bere idazmahaia eta lanerako txoko gogokoena. Ongi ikasiak zituen eguzkiak noiz argizatzen zuen gela osoa eta noiz hasten zen argia moteltzen. Baina ez zuen egun osoa bertan sartuta ematen, Lekunberriko eta eskualdeko herritar asko ezagutu zituen, edonoren atzean zegoen historia ezagutzeko interesa adierazten baitzuen eta bazuen jendarterako trebetasuna. Gure eskualdeko herrien historiak ere erakarri zuen, etnografia eta historia zalea zen Iñaki eta gure kaleetan euskara entzuten ez zuenean sufritu egiten zuen. Guri eskerrak ematea baino ez zaigu gelditzen, gurean ere zure aletxoak jartzeatik.



Eskerrik asko, Iñaki!

Mailope Taldeko kideak.



Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

“Gure asmoa ez da inoiz podcasta egitea izan; gerora atera zen kontua izan zen.”

Lorea Etxarri lekunberriarra, Nahikari Beltza gipuzkoarra eta Oiane Aramburu bizkaitarra dira “Putas amak” bideopodcastari ahotsa eta aurpegia jartzen diotenak. Amak hirurak, hasieran musika talde bat sortzeko asmoz bildu ziren, baina, dagoeneko, lau programa grabatu dituzte eta espero ez zuten arrakasta izan du esperimenduak.

“Bizitza badago erditu eta gero...”

Nola hasi garen, kar-kar-kar... Bai, pandemia eta gero elkartu ginen, gure bizitzetan gauza asko gertatuak zirela, eta gogotsu geunden gauza berriak egiteko. Eta, umeak edukita ere, laguntza eta antolaketa ona baduzu, gauzak egin daitezke.

Hirurak egoera antzekoak gaudeenez, gainera, ez diogu elkarri gehiegi eskatzen; podcastarekin denbora gehiago inbertitzen dugu baina, lehen, musika sortzeko astean pare bat orduz baino ez ginen biltzen. Egia da, baina, negoziatu behar dela ordu horiek lortzeko eta estu gabiltzala denboraz. Baina pena handia emango liguke ez egiteak, beraz,

denbora gutxi horrekin egiten dugu ahal duguna.

Orduan, nolabait, bultzada pandemiak ekarri zuen?

Ez, egia esan Nahikarik eta biok, hamabost urte genituela, udaleku batean ezagutu genuen elkar, lagunak gara eta auzo berean bukatu genuen... Eta Oiane ezagutu nuen bera ere ama zelako. Hirurak oso musikazaleak gara eta, orduan, beti, elkartzen ginenean, esaten genuen talde bat sortu beharko genukeela, baina inoiz ez genuen pauso hori ematen. Eta, pandemia ondoren, gogoz ginen eta oso modu naturalean atera zen. Gogoan dut Oianerekin topo egin nuela urrian, bigarrena eduki berria zuela eta ni ere nahiko momentu arrarotik nentorrela, eta esan zidala: “taldea sortu behar dugu *ya*”. Eta Nahikari prest zegoenez hasiera-hasieratik, ekin genion. Beraz, pandemiak lagundu bazuen ere, aurretik zetorren zerbait bazen.

“Gure asmoa musika taldea eratzea zen eta, oraindik ere, bada”

Hasieran, beraz, ez zen zuen asmoa podcasta egitea...

Ez, ez... Gure asmoa ez da inoiz podcasta egitea izan; gerora atera zen kontua izan zen. Gure asmoa musika taldea eratzea zen eta, oraindik ere, bada. Baina kostatzen zaigu, kar-kar-kar. Ideiak baditugu, baina gauzatu behar dira.



Argazkia: Labrit



Argazkia: Putas Amak

Hasiera batean entsegu-gela batean biltzen ginen baina banandu nintzenetik nire etxean hasi ginen biltzen eta musika gutxiago egiten. Eta hizketan genbiltzala, Nahikarik, bat-batean, esan zuen podcast bat egin genezakeela.

Bat-bateko "harrikada" izan zen orduan?

Bai, baina bagara nahiko "harrikada" zaleak... Egia da Nahikarik esan zuenean nik kasik ez nekiela zer zen podcast bat zehazki. Eta Oianek ere ez zuen oso argi ikusten. Baina Nahikari hirurotan modernena da, zalantzarik gabe, eta bazekien Tabakaleran diru-laguntzak ematen zituztela eta jendea ongi hartzen zutela eta proiektua aurkez genezakeela. Orduan, idatzi genien eta baietz esan ziguten. Nahikari bideogintzan ibiltzen da eta oso argi zuen berak nola egin behar ziren gauzak...

Aipatu beharko genituzke, akaso, zuen ogibideak...

Bai, Nahikari bideogintzan ibiltzen da, Oiane arkitektoa da eta nik gaztelania eskolak ematen ditut atzerri-tarrentzat Donostiako Hizkuntza Eskolan. Hori zen nire ogibidea Lisboan eta Montevideon ibili nintzenean eta,

"Gidoitxo bat prestatzen dugu eta bezperan, nork bere kasa, horren inguruan zer bota dezakeen pentsatzen du"

Euskal Herrira bueltatakoan, oposizio horiek atera ziren eta horretan bukatu nuen. Oso lan polita da.

Beraz, Nahikarik "harrikada" bota eta...

Eta guk, "bale". Egia esan oso erraza izan zen; berehala esan ziguten baietz eta diru-laguntza eman ziguten eszenarioaren gauzak muntatzeko eta erosi genuen neoizko gauza hori... Baina hor lana gehienbat Nahikarik egin zuen. Oianek, Tacumah reggae taldean kantatzen duenez, gauza teknikoaren inguruan ere kontrolatzen du. Ni naiz podcastean nagoena hor... "pakete" bezala, kar-kar-kar. Egia da ekipo ona egiten dugula; izaerengatik ekipo ona egiten dugu.

Eta nola prestatzen duzue saio bakoitza?

Normalean astero biltzen gara eta gaia pentsatzen dugu. Egia da lehengo hiru kapituluetan gaiak oso argi genituela aurretik: aurkezpena, amatasuna eta musika. Laugarrenarako, gure bizitza nahiko kaotikoa izanik; beti malabarrak egiten eta abar... Kaosa hartu genuen hizpide.

Gidoitxo bat prestatzen dugu eta bezperan, nork bere kasa, pixka bat horren inguruan zer bota dezakeen pentsatzen du. Baina ez dugu oso lotuta eramaten. Grabazioan denbora dezente pasatzen dugu, ordu eta erdi inguru. Eta, jaso ondoren, ardo bat edatera joaten gara. Baina gero lan handia hartzen du Nahikarik hori guztia editatzen...

Bada lana ordubete inguruko programak izanik...

Bai... Hasieran, ordu erdirekin nahikoa izango zela esaten genuen baina, gero, luzatuz joan da... Batzuetan pelmak garelara esaten dugu baina, finean, hor esertzen gara eta ateratzen dena egiten dugu eta kito. Ni nahiko lasaia naizenez eta lehentasuna musika dudanez, podcastarekin ez dut asko sufritzen.



Argazkia: Putas Amak

Finean, ongi pasatzeko zerbait da. Eta, gainera, ikusten gaituzte lagunek... Bueno, lagunek eta lagunuen lagunek eta abar.

Bueno, honezkerok, kalean gelditzen zaituzte...

Hori behin izan da! Eta, gainera, Aina LeGardon musikaria izan zen! Nik gelditu beharko nuke bera! Ez naute gelditzen, ez... Bueno, Lekunberrin ere esan izan didate zerbait...

Egia esan, ez dakit nork ikusten gaituen; zein den gure publikoa. Nik badakit 40 urte inguruko emakumeak izan daitezkeela orokorrean... Ama direnak... Baina gure egoeratik kanpo dauden batzuk ere ditugu ikusle, gutxiago badira ere.

Zentzu horretan, podcasta bada nahiko apurtzailea, ezta?

Bai, egia da. Nire ustez bada apurtzailea. Egiten dugu okurrizten zaiguna eta berdin du guztiak. Eta ongi dago, gustura gabiltza eta, bai, ongi dago gauzak egitea. Eta gure adineko emakumeek gizonen baino gutxiago egiten dituzte horrelako gauzak; gutxiago uzten zaie horrelakorik egiten... Kulturala izan daiteke. Eta testuinguruari dagokionez bazegoen, agian, nolabaiteko hutsunea.

"Gure egoeratik kanpo dauden batzuk ere ditugu ikusle, gutxiago badira ere"

Podcast plataformetan bazaude baina, berez, bideopodcastak da zuena...

Bai, lagun batek esan zidan aurrekoan bazebilela podcasta entzuten eta, esan nion, bai, agian Youtuben ikusi beharko lukeela. Entzun ahal da, baina egia da detaile batzuk galtzen direla. Hala ere, nik uste dut Nahikarik oso argi zuela guztia, eta agian Oianek ere ikusten zuela, baina ni despistatuena naiz hiruetan. Ni konturatu naiz bideopodcastak zer den gerora, kar-kar-kar. Irudiak zer nolako garrantzia duen ikusi dut gerora, lehenengo kapitulua ikusi ondoren eta lagun horrekin hitz eginda. Eta egia da estetika zaintzen dugula.

Gonbidatuak ere badituzue...

Bai, eta egia da batzuk amatsunaren bitartez ezagutu ditugula,

umeak ikaskide eta horrela. Hori-tako bat Sara Cozar aktorea da. Hasi-eran, taldean sartzeko tentazioa izan zuen, baina hain dabil lanpetuta bere kontuekin non, azkenean, gonbidatu bezala etorri den. Oso animatua da Sara. Eta pentsatu genuen gonbidatu gehiago eramatea baina, hiru izanik, laugarren bat sartzeak asko aldatzen du dinamika. Gure produktorea izango den Alai Ormazabal ere eraman genuen; oso jatorra. Eta, orain, Tabakalerarekin hitzartuta genituen lau kapituluak egin ditugula, udan, berarekin saiatuko gara musika grabatzen. Eta hori da gure lehen-tasuna. Baina hitz egiten ari gara bideopodcastaren bigarren denboraldia egin beharko genukeela. Agian maiztasuna aldatuz: irailean ikusiko dugu.

Orduan, honezkerok Rosaliarekin izaniko krisia gaudituta duzue...

Jakina! Oianek esaten du ez genuela krisirik izan baina, diskoa atera zue-nean, "Begira Rosaliak zer egin duen eta guk zer nolako mierda...", bota zuen Nahikarik. Baina bera Rosalia da, eta gu panoli batzuk baino ez. Eta izan genuen, bai, krisi hori, baina ongi. Gainera, ongi dago identifikatzea zer gustatzen zaigun. Sortzeko ona da hori.

Eta nola definitzen duzue zuen estiloa?

Ez dakit... Nahi baduzu galdetuko diet besteei... Bidaliko diet audio bat: grazia egingo die.

"Kaixo, neskak, galdetzen ari zait ea nola definituko genukeen gure musika... Bidali, mesedez, audio bat erantzunarekin. Eskerrik asko!"

Baina, behintzat, elektronikoa dela esan daiteke, eta elektro-kunbia ere izan liteke...

Bai, bai. Puntu latino asko gustatzen zaigu hiruroi. Erritmoa asko gustatzen zaigu, oso dantzagarria izatea... Hiruroi asko gustatzen zaigu dantzatzea. Oso argi genuen elektronikoa izan behar zuela eta gaur egungo musika izan behar zuela: autotune eta gauza horiekin.

Eta nolako da sorkuntza prozesua?

Nahiko nahasia egia esan. Baina Nahikari letrak sortzeko fina da eta


"Hitz egiten ari gara bideopodcastaren bigarren denboraldia egin beharko genukeela"

musika sortzeko hiruron artean egingen dugu. Agian nik base bat jotzen dut eta hortik aurrera ateratzen dugu melodia... Egin nahi dugu, adibidez, *La anarquía explicada a los niños* liburua abiapuntu reggaetoi bat sortzea... Bakuninekin perreatzten, kar-kar-kar. Bai, azken batean, interesatzen zaizkigun gauzak dira eta informalak bagara ere, pentsatzen ditugun gauzak ere esan nahi ditugu. Tarteko zerbait.

Hara! Erantzun dute!

Nahikari: "Nola definituko genukeen gure musika? Ostras, hau galdera zaila... Ateratzen zaiguna. Guk elektronika egin nahi dugu, eta horren barruan gauza asko daude. Gure musikan gure errealtateaz umorez hitz egin nahi dugu. Baina nola definituko genukeen... Ufaaaa..."

Oiane: "Nik esango nuke punk-pop-caribeana-elektronikoa dela. Asmatu berri dut, baina uste dut horrek barnebiltzen duela egin nahi duguna."





LEKUNBERRIK KULTUR JARDUERETARAKO BOLUNTARIOAK BEHAR DITU

Lekunberriko Kultura arloak boluntarioak bilatzen ditu urtean zehar egingo diren kultura jarduerak aurrera eramateko. Horretarako, kultura@lekunberri.eus helbidera idazteko edo 948 50 42 11 deitzeko eskatu die interesa duten herritarrei.



LGTBIQ+ PERTSONEN ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainaren 28an, LGTBIQ+ pertsonen eskubideen aldeko egunean, elkarretaratzea egin zen Larraungo udaletxean. Hurrengo egunean, ostegunarekin, Pride filma proiektatu zen Lekunberriko Txikiparken.

ARALARKO GUARDETXXEA

Aralarko guardetxea eraikitzeko deialdia ireki du, uztailaren 21era arte, Nafarroako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentuak. 400.000 euro baino gehiago jarriko dira irailean hasi eta 2024ko amaieran bukatu nahi den obra egiteko.





ZUNTZ OPTIKOA BETELUN, ARRIBEN ETA ATALLUN

Beteluko eta Arribe-Atalluko 244 etxebizitzei zuntz-optiko bidezko Interneta izateko aukera eman die Nafarroa mailan lan egiten duen Wikai enpresak. 600 mb eskainiko ditu Pitillasen eta Leitzaranean antzeko eskaintza zabaldu duen enpresak.



LEKUNBERRIKO EKAINAREN 29KO EZOHIKO BATZARRA

Ekainaren 29an egin zen ezohiko batzarrean honako hiru batzordeak zehaztu ziren: Kontuen Batzorde berezia, Etxebizitza-Hirigintza batzordea eta Tokiko Garapena. Herritarren parte hartzea sustatzeko bi lan talde ireki sortuko dira: Jai batzordea eta Kultura. Bailara mailako euskara eta berdintasuna lan taldeak mantenduko dira

Alkateak % 75eko dedikazio partziala izango du. Beste zinegotzien ordainsariak mantenduko dira.

KIROL ERREZETA LEKUNBERRIN

Lekunberriko Udalak osasunerako jarduera fisikoa eta ariketak preskribatzeko programa sortu du. Horren bitartez, lehen mailako arretako zentroetan, gaixotasun kardiobaskularrak edo bestelako arriskuak dituzten pazienteari kiroldegira joateko gonbita egingo zaio, han, diagnostiko medikoa ezagututa, gaixotasuna tratatzeko jarduerak eta ariketak biltzen dituzten 10 hilabeteko programa diseina dakion.



Hatz-mamiez, punttuka, euskaraz irakurtzen ikasten

Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroko lau kidek Punttuka metodoa garatu dute: itsuek gustura eta euskaraz braille sistema ikasteko metodoa. Talde horren kide da Puri Mugiro aldaztarra, taldeko euskaldun bakarra.

14

Ikasle itsuak nola ikasten du irakurtzen? Taldetik aldentzen da eta gainerakoek behar ez duten sistema ikasteari ekiten dio? Tamalez, hala izan da hamarkadatan. Zorionez, ez du zertan.

1993an, Bizkaian, metodo bat sortu zen euskaldunek braille irakurtzen ikas zezaten, Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroan ere baliatzen zutena. Baina, bakarka lantzeko materiala izateaz gain, euskara aldetik oso mendebaldekoa eta zaharkitua zen. Hori dela eta, Puri Mugiro aldaztarrak, Isabel Santestebanek, Sandra Navarrok

“ONCEk laser-makinak ditu, guk guraizeak”

Isabel Santesteban

eta Manuel del Portillok material berriago baten beharra ikusi zuten. Ezagutu zuten ONCEk sortutako metodo erakargarriago bat, Braitico izenekoa, gaztelaniaz ikasteko balio zuena. Edukiak batetik eta forma bestetik hartuta, hasi ziren metodo propio bat sortzen, gerora Punttuka izena hartuko zuena.

Punttukak, Braiticok bezalaxe, objektu tridimentsionalak baliatzen ditu. Metodo berri hauek ez dira braillearen puntutxoetara mugatzen; ez dute ikaslea taldetik aldentzen. Sistema hauetan, inprimatutako hitzekin eta erliebea duten puntutxoekin batera, ukimenarekin lotutako elementuak daude: har daitekeen erraketa bat, uki daitezkeen sagutxoak, irekitzen den leiho bat... Testurek garrantzi handia dute eta hitz horiek izendatzen dituzten objektuak uki ditzakete ikasleek.

Edonola ere, Punttuka ez da Braiticoren bertsio euskalduna. ONCEn proposamena hobetzen saiatu dira NHEBZ-ko kideak. Puri Mugirok eta Isabel Santestebanek azaldu dute, bestean ez bezala, beren metodoan fonemen ezagutzaren hurrenkeraren menpeko progresioa ematen dela, QR kodeen bitartez aukera ematen



Puri Mugiro eta Isabel Santesteban / Arg.: Labrit

dela abestiak entzuteko eta, fonema guztiak ezagututakoan, olerki batzuk aurkezten zaizkiela ikasleei guztiaren erreposoa egin dezaten. Poemen hautaketan lan handia hartu du Mugirok, lantaldeko euskaldun bakarrak.

Liburuki bakoitzak fonema bat lantzen du: /b/, /rr/, /tx/... Azalean bertan, braille sistemaren sei puntuetatik zeintzuk altxatu behar diren adierazten da eta, barruan, ikasleak hitz bat du erreferentzia gisa. Fonema berari lotutako hitzei dagozkien hiru dimentsiotako elementuak topa daitetzke; hala nola aurretik aipaturiko erraketa, /rr/ fonemaren liburukian. "Saiatu gara gauza bakoitza desberdina egiten; garrantzitsua da ukimena zaintzea, bestela plastikoak itsu bati ez dio ezer esaten", zehaztu du Puri Mugirok. Hitzen ondoren esaldiak datoz.

Metodoa osatzen duten gauza guztien artean, deigarria da jostailuzko tren txiki bat ere badagoela, norabidea zein den, alderantzizko fonemak irakasteko balio duena, adibidez: /la/ eta /al/. Diotenez, oso ohikoa da ikasketa prozesuan ordena nahastea, haur guztientzat. Hori dela eta, ikusmen urritasunik gabeko geletarako ere egokia izan daitekeela adierazi izan diete.

Punttuka metodo progresiboa da eta, honenbestez, liburukiak gizenduz doaz, aurretik ikasitakoarekin ere lan egin daitekeelako. Hurrenkera,



Arg.: LabritT

hala ere, ez da ikusten dutenek izaten duten berbera: bokalen ondoren, /l/ da ikasten den aurrenekoa, ezkerreko hiru puntuak hartzen baititu; ondoren /b/, ezkerreko lehenengo biak hartzen dituen; jarraian /k/...

Hiru urte eman zituzten materiala sortzen. "Tintan eta braillean inpri-

"Garrantzitsua da ukimena zaintzea, bestela plastikoak itsu bati ez dio ezer esaten"

Puri Mugiro

matu behar duzu. Eta ez dago hori egiten duen makinarik. Beraz, aurrena egin behar duzu batean eta gero bestean, eta bat etorri behar dute; ez da batera erraza", azaldu du Isabel Santestebanek. "ONCEk laser-makinak ditu, guraizeak", gaineratu du barre artean.

Materialaren beharra ikasle gutxik dute ikasturte bakoitzean, ez baitira asko braille ikasteko adinean dauden haurrak. Baina sentibilizazioarako hainbat lekutara eraman dute

Punttuka, argi ikus dadin zer nolako garrantzia duen integrazioan laguntzen duten materialek. Badira, hala ere, ezinbestean bakarrik landu beharko dituen kontuak: Perkins idazteko-makinaren erabilera eta beste. Baina irakurtzen ikasteko prozesuan ikaskideekin egin ahal izatea, alde handia da, eta hala azpimarratu du Puri Mugirok: "Lan egiteko modua da: gusturago egongo da, ez da bazterturik sentituko, bere materiala gainerakoei ere gustatuko zaie eta partekatu ahalko du hurbilekoekin".

Euskal Autonomia Erkidegoan saiatu dira antzeko bat sortzen, baina, momentuz, ez dute lortu. "Gu gutxiago gara eta elkarrekin gaude guztiak, horrek abantailak ere baditu", esan du Mugirok. "Erotu ginen objektuak eta testurak bilatzen, bazar batetik bestera, hamaika proba egiten...", kontatu du Santestebanek. Gogora ekarri dute luze ibili zirela proiektuari izenik eman gabe lanean. "Kataluniako metodoak Punt a punt izena zuela, Punttuka jarri genion guk, tt-rekin; goxoagoa. Eta logotipoa nire alabak egin zuen", azaldu du Puri Mugirok. "Oso etxekoa" kontsideratzen dute Punttuka sortzaile biek. Harro daude eta ez da gutxiagorako.

Puri Mugiro: integrazioa eta euskara

Integrazioaren alde hamarkadak lan egiten eman ondoren, jubilatu da Puri Mugiro. Askotariko pasadizoak utzi dizkion ibilbideari amaiera ezin hobea eman dio Punttuka metodoarekin pedagogoa aldaztarak.



16

Puri Mugiro aldaztarak txiki-txikitik izan du euskararen egoerarekiko eta desgaitasuna bizi dutenekiko kontzientzia. Alaba txikiena zen eta denbora asko pasatzen zuen umetan mugikortasun arazoak zituen aitarekin; euskaldun elebakarra bera. Hamasei bat urte zituela, Aldazko eskolan hasi zen hurrekin udatan boluntario, oso gustura ibiltzen baitzen haiekin. Ez da harritzekoa pedagogia terapeutikoan espezializatu izana,

“Errealitate bilakatu den ametsa da Punttuka”

Puri Mugiro

atzera begira, erraz identifika baitaiteke nondik datorkion bokazioa.

Nafarroako Unibertsitatea utzita, non ez zebilen nahi bezain gustura, EHUrako joan zen, ikasketak bukatzera. Han, lizentziatu ostean, artean gaztelania hutsean irakasten bazen ere, Unibertsitateak eskola batzuk euskaraz emateko aukera eskaini zioten diru-laguntza baten bitartez. Baztertuen eta moldatu gabeko



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU


948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**



urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI



Arg.: Labrit

pertsonen inguruko mintegia zuzendu zuen Mugirok. Ondoren, 1987an, Elizondon hasi zen logopeda gisa, hizkuntza atzerapena zuten ikasleekin lanean. Garai hartan, gainera, LISMI (Ley de Integración Social de los Minusválidos) zelakoa indarrean, ordura arte baztertuta izan zituzten ikasleak integratu zituzten ikastaldeetan eta “iskanbila izan zen horren inguruan; jende askok ez zuen aldaketa ongi hartu. Baina helduen aurreiritziengatik izan zen, ikasleek primeran onartu baitzituzten ikaskide berriak”, kontatu du Mugirok.

Han eta hemen ibili ostean, DBH ezarri zenean, 1995ean, Iruñeko Irubide institutura heldu zen. Garai hartan, artean Atlantikoaren beste aldetik jende askorik etortzen ez zelarik, Dominikar Errepublikako ikasle bat egokitu zitzaion. “Nire klasera ekarri zuten, atzerapena zuten ikasleekin. Baina ez zuen halako arazorik; bere atzerapena curriculumera mugatzen zen, besterik ez”. Mutikoa beldurturik topatu zuen. Purik irakatsi zion ez zuela inoiz lotsarik sentitu behar: ez jatorriagatik, ez azalaren koloreagatik. Sortu zen harremanarekin eus-

“Beldur puntu bat sortzen du ikasle itsu batek irakasleen artean. Baina primeran egokitzen dira”

Puri Mugiro

kara ikasi nahi zuela esan zion behin mutikoak, “has gaitetzen matematikarekin eta ikusiko dugu aurrerago”, gogoratu du esan ziola Mugirok barre artean. Urtetara gizon handi bat ikusi zuen beragana korrika: “Puri, Puri!”, deika. Esker onez hitz egitera zihoakion ikasle ohi dominikarra.

2001. urtean atera zen euskarazko lehenengo plaza Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroan. Ordura arte ez zegoen euskaldunik bertan. Ikusmen arazoak zituztenekin lan egiteko talderako zen eskaintza eta, esperientziarik ez zuela aitortu bazuen ere, Puri egoki ikusi zuten lanposturako. Asmatu zuten,

bistan da: aldaztarra “maiteminduta” geratu zen segituan lanarekin. “Polita da ikasle batekin zuzenean ari zarelako. Asko baloratzen dut hurbiltasun hori. Eta, itsu batekin eta ikusmen urriko ikasle batekin lan egitea oso desberdina bada ere, oso bideratuta dago guztia; erraza izan zen niretzat erritmoa hartzea”, azpimarratu nahi izan du Mugirok.

“Hasiera batean, beldur puntu bat sortzen du ikasle itsu batek irakasleen artean. Baina primeran egokitzen dira eta oso gustura geratzen dira haiekin; curriculum aldetik ez dute problemarik, gutxiago distraitu ohi dira...”, kontatu du.

2016an, Lekarozen ibili eta institutua egokitzeko proiektu batengatik saritua izan ostean, NHEBZra bueltatu zen. Eta gauza bi konprobatu zituen: ordurako zentrotik hainbesteko lan zuzena ez zela egiten ikasleekin, eta teknologia berriak pisu handiagoa ari zirela hartzen. Hori dela eta, hainbat programa informatikoetara egokitu behar izan da azken urteotan. Erasmus programari esker Bolonian eta, batez ere, Finlandian egindako egonaldiek ere ikuspegia aldatu egin diote. Hainbeste aurrerapenen aldean euskaraz braille sistema ikasteko 1993ko metodoa erabiltzeak lotsa apur bat ematen ziola, ikusi zuen Punttuka sortzeko beharra: “Errealitate bilakatu den ametsa da Punttuka”, erabaki du Mugirok.

Ekainean jubilatuta berri da Puri, integrazioaren alde egin duen ibilbideari Punttukarekin amaiera bikaina emanez. Baina nork pentsa dezake emakume hau geldirik geratuko dela? Honezkero pare bat urte darma Pertsona Migratuendako Informazio Gunean boluntario. Hori bai, lasaiago bizitzeko tarte handiagoa hartzen saiatuko dela agindu du.

“Uste dut Lekunberrin gauza politik egin daitezkeela”

Maiatzaren 2an hasi zen Aitor Perez Mangado iruindarra Lekunberriko Kultura teknikari lanetan. Lehenengo asteak postua sortzen eta jendea ezagutzen eman ostean, kultura eskaintza zabaltzeko gogoz dago 28 urteko dultzaineroa.

Nor da Aitor Perez Mangado?

28 urte bete berri dituen iruindarra naiz. Artearen historia ikasi nuen Gasteizen eta, ondoren, kultura ondarean kudeaketari buruzko master bat egin nuen Valentziako Nazioarteko Unibertsitatean, online. Gainera, pandemia garaian izan zen eta, denbora hori aprobetxatzeko modu ona izan zen. Masterra amaitutakoan, Garesko Udalean kultura teknikaria behar zuten aldi baterako, eta itxaropen handirik gabe aurkeztu banintzen ere, azkenean, lortu nuen lanpostua. Han 2021eko urrian hasi nintzen lanean.

Aldi baterako kontratua izanik, urte eta erdi egon nintzen, aurtengo martxora arte. Eta, justu, urtarrilean atera zen hemen, Lekunberrin, kultura teknikaria ari zirela bilatzen. Gareskoa bukatzeaz zela, pentsatu nuen “aur-

“Pixkanaka postua sortu behar izan dut, lankideen laguntzarekin.”

keztuko naiz ea ateratzen dudan”, eta zortea izan nuen eta hemen nago.

Gainera, apirilean izan ziren probak, ezta?

Bai, bai; langabezia egon nintzen hilabete. Oso ongi joan zen guztia: lortu nuen eta hementxe nago. Maiatzaren 2an hasi nintzen.

Bazenuen aurretik harremanik Lekunberriekin?

Etorria nintzen baina, nafar gehienak bezala, egun pasa edo beste kontu batzuetara. Baina, egia esan, ez nuen herria asko ezagutzen. Hala ere, ikasteko prozesuan herriko jaietako eta kultura arloko informazio asko bilatzen ibili nintzen eta, pixkanaka, joan nintzen Lekunberri gehiago ezagutzen.

Nolakoa izan da Lekunberrin lanean hastea?

Egia da, heldu nintzenez, lanpostu berria zenez, antolaketa egiteko zegoela. Eta, bueno, pixkanaka postua sortu behar izan dut, lankideen laguntzarekin, jakina... Orain arte, kulturako kontu batzuk Mitxausean kudeatzen ziren, beste batzuk hemen... Orduan, horren guztiaren bilketa egin dut eta, nolabait, forma pixka bat eman diogu honi.

Inguruko taldeekin eta eragileekin harremanak egingo zenituen honezkero...

Bai, lehenik eta behin kontaktuak eskatu nituen neure burua aurkezteko





Arg.: Aitor Perez Mangado

eta horietako batzuekin hartu-eman zuzena izan dut dagoeneko San Joanen harira. Baina oraindik jende eta talde asko ditut ezagutzeko eta zer lan egiten duten ikusteko. Aurkezpen "ofizialago" bat egiteko beharra ikusten dut.

Garesekin alderatuta nola ikusten duzu Lekunberri?

Bietan postua sortu behar izan banuen ere, oso modelo desberdinak dira. Gainera, Garesek 2022an herriaren 900. urteurrena ospatzeko zutenez, urte osorako programa berezia sortu beharra zegoen, ohiko festez eta kontuez harago. Lan handia izan bazen ere, oso parte-hartzailea eta polita izan zen guztia. Hemen desberdina da: Lekunberri dagoen kultura eskaintza kudeatuko dut eta kultura eskaintza zabaltzen saiatuko gara, ahal den neurrian. Ezin dira herri biak konparatu; kokapen geografikoa oso bestelakoa da, turismo aldetik desberdinak dira, tradizio aldetik ere bai... Beraz, bakoitzak bere modeloa du. Baina ikusten dut hemen ohiko festetara eta azoketara nahiko mugatuta dagoela eskaintza. Literatura, antzerki eta musika aldetik hutsunea

"Literatura, antzerki eta musika aldetik hutsunea sumatzen dut."

sumatzen dut eta hori iraultzen saiatu beharko ginatke. Aurreko udalbatzak zein berriak bide horretatik jo nahi dutela esan didate eta, ni hemen nagoela, programa hori zabaltzeko ahalegina egin behar dut urte osoan kalitatezko gauzak eskaintze aldera. Edonola ere, argi dugu kopurua baino, kalitatea dela gakoa.

Beraz, alde handiena hori da: hemen lan pixka bat gehiago dago urtean zehar egin daitezkeen horiek txertatzeko. Politza izango da eta jendearekin elkarlanean aritzeko gogoia dut. Badira espazioak, badira gauzak egiteko gogoia duten taldeak... Badira entsalada on bat egiteko osagaiak, kar-kar-kar. Baina aurreneko hilabete hauek trantsiziozkoak izango dira; hurrengo ikasturtetik aurrera hasiko gara gauza berriak proposatzen eta, dagoeneko, baditugu hainbat ideia lehen aipaturiko esparru horietan. Nik uste dut gauza politak egin daitezkeela.

Momentuz jardunaldi erdia duzu, ezta?

Bai. Espero dut jardunaldia luzatzea, baina, momentuz, ez dago erabakita zer gertatuko den. Baina gauzak ongi egiteko denbora behar da eta uste dut ona izango litzatekeela dedikazio handiagoa izatea.

Lanorduetatik kanpo ere kulturarekin lotura estua duzu...

Bai, dultzaineroa naiz eta betidanik gustatu izan zait folklorea; dantzak, erraldoiak... Txikitatik hasi nintzen, Iruñean, alde zaharreko konpartsa txikian eta abar. 2008an hasi nintzen atabala jotzen ikasten, 2009an ekin nion dultzaineroekin ibiltzeari eta, 2011an, sortu nuen Iruñeko Haizeberri dultzainero taldea. Oso gaztetik daramat beraz honetan; 16 urterekin hasi nintzaion jendeari gaita jotzen irakasten.

Nire bizitzaren zati handi bat dedikatzen diot musikari, baina hamaika saltsatan ibilia naiz: beste konpartsa batzuetan, antzerki eskolan... Nahiko argi zegoen kulturarekin loturiko lan batean bukatuko nuela. Eta hemen nago, pozik.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK
.....
24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

amairu bar
ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

BETELUKO SAN PEDRO JAIAK

San Pedro jaiak ospatu zituzten beteluarrek ekainaren 28tik uztailaren 2ra. Euriaren beldur bazebiltzan ere, nahiko ateri eutsi zion asteazkenetik igandera eta oso giro onean joan ziren jaiak. Kontzertuak, kirola, dantzak, txarangak, txokolatadak, jolasak, aitzur eta zartagin jaurtiketak... Gustu guztietarako egitaraua.

Bereziki arrakastatsuak izan ziren herri afaria eta paellada, zeinetan 300 lagunetik gora bildu ziren. Ezinbestean, antolatzaileak oso pozik agertu dira giroarekin eta herritarren partehartzearekin.



20



**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasune
babezteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**HOSTAL
BETELU**

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09



Atabal
okindogia

Era askotako
ogiak eta gozoak

**Etkez etxe
banatuko dugu**

Ogia enkargatzeko...
948513151

Txiste txarrak



Zeinen gauza ederra den umorea! Tentsioak kentzeko, bizitzaren poza-rekin konektatzeko, gure buruaz barre egiteko... Baina izan daiteke ere besteen lepotik barre egiteko, adibidez burusoilak direlako, ezkongabeak... Gizarte balore estandarrek baieztatzen. Izan daiteke ere pertsonak edo kolektibo sozialak, adibidez ijitoak, emakumeak... gutxiesteko, kritikatzeko...

Oso nahasgarria da gainera asmo onez txisteak egiten ditugunean eta ohar-kabe norbaiti gaizki esaka ari garenean. Txiste bakoitzean epai bat dago, zer den ona do zer den txarra diona. Umore klabean izateak ez dio garrantzia kentzen epai edo ideia finko horri. Askotan txisteek ez dute graziarik egiten txarrak direlako, iraingarriak.

Badaude umore moduak nahiko finkatuak daudenak garaiazen arabera. "Modan" dago garai bakoitzean sozialki onartua denari barre egitea. Nire garaian etiopiarrek ziren, oso flakoak zirelako. Edo Lepe-koak, asto xamarak zirelako, edo euskaldunak, exageratuak omen, tripazorriak... umorearen bidez izaerak finkatzen dira ere, nolakoak izan behar garen.

Eta agian arriskutsuenetako bat, elkarri gauzak esateko erabiltzen dugun umorea da. Batzuetan kontzienteki, broma moduan baina pentsatzen duguna esatea da, garrantzirik izango ez balu bezala, bestela esateak beldurra ematen digulako... Beste batzuetan oharkabean aldiz, broma baten ondorioz eztabaida hasten da, hor umorea baino gehiago, minak, asegabeak, eta abar aipatzen direlako, nahiz eta umore tonua izan. Behar duten seriotasun eta tonurik ez dutelako, ez dira ongi ulertzen eta nahasmena etor daiteke.

Niretzako oso garrantzitsua izan da umoreaz hausnartzea eta zer umore egiten dudan ohartzea, bai bertsolaritzan lan egin ahal izateko eta baita bizitza pertsonalerako ere. Virginia Imaz klown paregabeak esaten zuen bezala, umoreak norberatik pasa behar du beti, eta umorea egiteko, zauriak itxia egon behar du. Ea ba zer umorekin datorkigun aurtengo udara, besarkada bana eta ongi pasa!



LEKUNBERRI

Lekunberriko San Joan jaiak

Lekunberriko San Joanak ospatu zituen ekainaren 23tik 25era. Ostiral gauean suak, txistorrada eta kontzertua izan zuten. Larunbatean, dianak, meza, erraldoiak, bazkari herrikoia, antzerkia, karaokea eta Dja. Eta, igandean, dianak, meza, erroldatu berriei ongi etorria, janari dastaketa eta pilota partidak.



Arg.: Lekunberriko Udala



Arg.: J.A. Goikoetxea



Arg.: J.A. Goikoetxea



Arg.: J.A. Goikoetxea



Arg.: Lekunberriko Udala

22



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Larraungo eguna

Larraungo eguna ospatu zen ekainaren 16an eta 17an, Azpirotzen eta Aldatzen, hurrenez hurren. Azpirotzen mus txapelketa losu Santamariak eta Aitor Irastortzak irabazi zuten, Ekaitz Alduntzin eta Joxe Miel Etxetxikia txapeldu-norde utziz eta, ondoren, afari autogestionatua egin zen. Larunbatarekin, Aldatzen, musika, pilota partidak, magoa, eskulanak, jolasak eta abar izan os-tean, DJarekin itxi zuten eguna.



Argazkiak: J.A. Goikoetxea

MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

Madres Buscadoras? Halakorik!

Dena erretzeko gogoia ematen du ha-lako berri nazkagarriak irakurtzean sortzen zaidan inpotentziak. Hau iraku-rrita nola sentitzen nintzen azaltzeko erabili nahi nituen lerrook, baina zein naiz ni protagonista bihurtzeko? Bene-tako meritua eta ausardia duten prota-gonisten lana azaltzeko tartea hartuko dut, bada.

Mexikoko Jaliscoko Madres Buscadoras elkarteak hainbat gorpu erdi lurperatu topatu zituen duela hilabete. Bi aste geroago bertara berriz hurbildu ziren eta ikusi zuten autoritateak oraindik ez zirela bertaratu. Urte asko dira gor-puak bilatzeko lanetan dihardutela eta lurrean gertatzen diren aldaketa txikie-nak ere detektatzeko gai dira. Bazeki-ten lur horietan, azken egunetan, mu-gimenduak egon zirela. Eta halaxe izan zen. Momentuz, 32 gorpu erreskatatu dituzte autoritateek.

Desagertutako pertsonen gorpuak bi-latzeko AS-TE-AR-TE-RO biltzen dira. Gainera, dei anonimoek gidatzen di-tuzte euren bilaketak. Gehienetan, kriminalen dei anonimoenak. Taldeak, gero, autoritateei deitzeko ardura har-tzen du.

Mexikoko Pertsona Desagertuen Erre-gistro Nazionalaren arabera, ia lau mila pertsona desagertu dira 2023an. Gehienak, gizonezkoak (%66). Gizo-nezkoen artean adin tarteak ez du aparteko informaziorik ematen; aitzit-ik, emakumezkoen artean zenbakiak oso bestelakoak dira. Desagertutako emakumeen erdiak baino gehiagok 15 eta 19 urte bitarte zituen. Mexi-koko Haurren Eskubideen Sareak esplotazio sexualerako eta adingabekoen saleroske-tarako erabiltzen di-tuztela salatu du.



Euskal Herriko Mendi Erronka

Ekainaren 3an Euskal Herriko Mendi Erronka egin zen. Ultra trail lasterketa da, 7.200 metroko desnibela metatzen baitira Araitz-Betelu, Lekunberri, Larraun eta Leitzaldean barrena egin zen 67 kilometro luzeko proban zehar.

Errigora omendu duen bederatzigarren edizio honetan, Oihana Azkorbebeitia bizkaitarrak (7:54:59) eta Ander Iñarra gipuzkoarrak (6:34:23) ezarri zituzten errekor berriak. Goiztiarrak Mendi Lasterkari taldeko kide diren Raul Amatriain uitziarra (5. postuan), Iñigo Lasarte lekunberriarra (39. postuan), eta Arruizko Alfontso Etxarri (41. postuan) izan ziren gure kirolarien artean lehenengo hirurak.

Erreleboetan Iñigo Larrarte eta Laiane Arrospide izan ziren heltzen lehenak.



Lekunberri Kirol Elkarteak bere eguna ospatu zuen

Klubaren eguna ospatu zuen Lekunberri KE-k ekainaren 18an. Erakustaldiak, maskotaren aurkezpena eta omenaldiak izan zituzten. Paellaz gain, plater nagusia Martin Juanenak gidatutako goi-mailako kirolarien mahai-ingurua izan zuten, non Juantxo Fuertes igerilaria, José Luis Arrieta txirrindularia, Unax Uterga eta Leire Ruiz de Argandoña eskalataileak, Zupo Equisoain eskubaloia entrenatzailea eta Anne Barandalla eta Luzia Zamora eskubaloia jokalaririk hartu zuten hitza. 250 lagun inguru bilduta, oso balorazio positiboa egin zuen klubak.



Herri Kirol eguna ospatu zuen Araxes Herri Kirol taldeak

Ekainaren 17an, Herri Kirol eguna antolatu zuen Araxes Kirol taldeak Betelun. Giro ederrean tartekatu ziren probak, apustuak, bazkariak eta triki-poteoa.



Erremontea

Segurolak eta Juanenak mendean hartu zituzten Urriza eta Ibai Martirena uitziarra Sagardoaren Txapelketako finalean (11-15, 15-10 eta 2-5). Galarretako harmailetan jende andana bildu zuen partidak sortutako ikusmin handiak.

Hurrengoa:

Naiara Juanena (Iribas)



**Guratz Azpiroz
(Uitzi)**

maite ditut maite gure bazterrak

**Malloetako
lehenengo sei
tontorren buelta**

Ibilbidea: joan-etorria

Distantzia: 10km

Desnibela: 350m

Zailtasuna: erraza

Zergatik aukeratu dut?

Entrenatzeko nahiz deskonektatzeko ibilbide berezia delako niretzat. Uitzu herritik atera, Guratz mendira iritsi eta bertatik Malloez goatzeko aukera ematen digulako.

Bidea:

- 1 Uitziko plazatik irten eta Gorritiranzko noranzkoan joango gara. Azkeneko etxean ezkerretara joko dugu pista gora.
- 2 Kilometro bat gorantz egin eta bidegurutzean eskuinetara joko dugu. Hortik 200 metrotara ezkerrean pista hartuko dugu.
- 3 Soro bat gurutzatuko dugu (km2), eta berehala Mailoak eta Santa Barbara (Malkorraundi) parean izango ditugu.
- 4 Gorritirantz doan pista ezkerretara utzi eta eskuinetara sartuko gara, garai bateko gurdi-bidea zenari jarraituz.
- 5 Soro zabal batera iritsiko gara eta eskuinetara joko dugu, errepiderantz (km 3,5).
- 6 Behin gorritiko gainera iritsi (km 4) eta Guratz aldera joko dugu, langa ezkerretara utziz une oro.

25

* Ume txikiekin joanez gero kotxea Gorritiko gainean aparka daiteke, ibilbidea laburragoa izateko (2,5km osotara)

emozioen munduan



● ● Lorea Zulet (Psikologoa)

Nahi eta ahal... Edo ez

Sarritan gure bizitzan zehar esaldi batzuk entzuten ditugu: nahi baduzu, ahal duzu; egiten saiatzen ez zarena da ezinezkoa den bakarra; zure muga bakarra zure burua da... Korrante positibista honek buruz dakarkigu!

Esaldi horiek guztiek ulertarazten digute gertatzen zaigun guztia gure esku dagoela. Gure autoexijentzia maila estratosferiko batzuetara igotzen da, gerta ezin daitekeen perfektioa lortu nahi baitu. Esan nahi dut bizitzan gauza batzuetan kontrola daukagula, baina, beste gauza batzuetan, ez dugu kontrol-ahalmenik. Batzuetan, zaila da kontrolatzen duguna eta kontrolatzen ez duguna

bereiztea, baina garrantzitsua da egitea, ez dagozkigun gaiengatik ez kezkatzeko.

Egoera pertsonalean, profesionalean, maitasunezkoan eta adiskidetasunezkoan, gure erantzukizuna izango den zati bat egongo da: gure erabakiak, gure emozioen kudeaketa, egin ditzakegun ekintza praktikoagoak.

Beste guztia, gure kontrolpean ez dagoena, ez dugu gure gain hartu behar: besteen historia, beste pertsona batzuen erabakiak, besteen itxaropenak, besteen erabakiak.

Eta bi alde horiek bananduta ere, egin dezakegun guztiaz arduratuta ere,

batzuetan gauzak ez dira nahi edo espero bezala ateratzen. Hain zuzen ere, gure kontroletik ihes egiten duten gauzak daudelako eta hori onartzea garrantzitsua delako.

Azkenik, jarrera. Garrantzitsua iruditzen zait zure asmoak lortzeko ahalegina egitea, egin dezakezunaren eta zure kontrolpean dagoenaren ikuspegi errealistari eutsiz, zure gaitasunak eta eskura dituzun baliabideak kontuan hartuta.

Azken batean, nahi baduzu eta behar bezala lan egiten baduzu, aukera gehiago izango dituzu hori lortzeko. Behar diren ezaugarriekin une egokian egonez gero.

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

German Lasarte
ARBEONDO HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

AMAIRU BAR
ETXKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK
948504352

Antsonea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

KUL TUR

2023
ekainak 24 /
irailak 09

PROGRAMAZIOA



Udako kultur programazioa.
Estilo guztietako musika, dantza,
antzerkia eta askoz gehiago

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



 cultura navarra.es

UZTAILA

30 Lekunberri

“Lehen mailako” fisioterapia Lekunberrin bertan

Futbol talde profesionalean ibili ostean, iaz, 2020an zabaldu zuten kontsultari lehenetasuna emateko erabakia hartu zuten Andoni Ayerdi eta Borja Oreja lekunberriarrek. Hautuarekin ez dira damutzen eta pozik agertu dira klinikak dakarren erritmoetara egokituta.

Ospea eta soldatak ez bezala, lesioak oso demokratikoak dira; mundu mailako tenis jokalaririk onenak herriko zurginak duen lesio bera izan dezake. Edonola ere, tratamendu batzuk berdinak edo antzekoak izanagatik, garrantzitsua da sendatze-prozesua pertsona bakoitzari egokitzea.

Andoni Ayerdi eta Borja Oreja fisioterapeuta lekunberriarrek futbol munduan ibiliak dira. Eta ez edozein taldetan, baizik eta lehenengo mailan dabilen hiru taldetan. Borja Girona FC-n hasi zen eta Andoni Deportivo Alavés gasteiztarrean. Aurrerago Osasunak Borja “fitxatu”

zuen eta, urtebetera, Andoni hasi zen talde berean. Ordurako Ayerdi Oreja martxan zen.

Atzera salto egin behar: Andonik eta Borjak Bartzelonan ikasi zuten. Ezagunak izanik eta denboran eta espazioan nolabait kointziditu bazuten ere, ez ziren unibertsitate berean ibili; Ramon Lull-en Andoni eta Internacional de Catalunya-n Borja. Graduatutakoan, etxera bueltatu zen lehenengoa, eta Katalunian geratu zen bigarrena. Andonik, klinika batean ibili ostean, 2016an, kontsulta propioa ireki zuen izebak zuen lokal

batean, eta hori uztartu zuen denboraldi batez Amma Betelu zahar etxean lan egitearekin. Aurrerago kirol jardueri begirako fisioterapiari buruzko masterra egin zuen Bartzelonan eta, horren praktikak, Gasteizen. Han sortu zitzaion “Glorioso” delako talde gasteiztarrean sartzeko aukera. Borjari, bere aldetik, Girona FC-n sartzeko aukera heldu zitzaion Bartzelonako klinika batean zebilela. “Proiektu berria zegoen eta zerbitzu-medikuak zerotik osatu nahi zituzten. Han bost urtez ibili nintzen”, zehaztu du Borjak.

Eta, bat-batean, 2019ko urtarrilean, Girona-Alavés: banako berdinketa, jakin-mina duenarentzat. Hotelera joan zitzaion bisitan Borja Andoniri eta, orduan ere, lehendik buruan zebilkien ideia izan zuten hizpide: bion arteko kontsulta sortzea. Denboraldi hartako azken jardunaldian, Girona bigarren mailara kondenatuta zegoela, joan ziren katalanak Gasteiza. Ordurako Borja Osasunarekin zen hizketan eta,

“Denbora generaman elkarrekin kontsulta sortzeko asmoz”

Andoni Ayerdi

“Futbol munduan, askotan, ez dago tratamendu egokienak egiteko astirik”

Borja Oreja



handik gutxira “fitxatu” zuten. Biak Nafarroan, jarri zuten proiektua martxan, Lekunberrin. Urtebete eskasera, Andonik beteko zuen hutsune bat sortu zitzaion Osasunari. Biak talde berean eta klinika berean, askoz errazagoa egin zitzaien koordinatzea. “Aurretik, ni Alavésen nengoela, goiz eta arratsalde ibiltzen nintzen hiru egunez; Borja, berriz, astelehenetik ostiralera, baina goizez baino ez...”, gogoratu du Andonik.



AyerdiOreja



Osasunan bi urte eman zituzten: “Goizez Taxoaren, arratsalde Lekunberrin, eta, asteburuetan, tokatzen zen lekuan”, azaldu du Borjak. 2022ko udan, taldeak metodologia aldaketa planteatu zuen, arratsalde askotan lan egitea eskatuko ziena. Erabakia hartu behar izan zuten fisioterapeutek: Osasuna edo AyerdiOreja.

Askoz lasaiago dabilta orain. Haien hitzetan, lesioak tratatzeko modua oso bestelakoa da, ez baitira gauza bera pertsona batek behar duen tratamenduari dagokion denbora eskaini ahal izatea eta, igandeko jardunaldiak epe-muga markatzen duela, jokalaria bat jokatzeko gai izateko moduan edukitzea. “Kalitatezko tratamenduak hemen egiten dira. Futbol munduan, askotan, ez dago horretarako astirik”, erabaki du Borjak. Beraz, ikasteko eta hamaika pasadizo biltzeko urte politak bizi izan badituzte ere, ez dira hautuaz damutzen. “Pena bakarra, justu Errege Kopako finalera iritsi diren urtean utzi dugula taldea”, aitortu du Borjak barre artean.

Hiru urte daramatza AyerdiOrejak martxan eta hiru etapa identifikatzen dituzte bere protagonistek argi eta garbi. 2020an, pandemiak konplikatuz zizkien hastapenak: “Atzeratu ziren obrak, guztia desinfektatu behar zen saio bakoitzaren ostean...”. Hura pasatakoan, Osasuna eta kontsultaren hazkundera uztartzeko zailtasunak eta, orain, bien hitzetan, “momenturik onena” ari dira bizitzen; kontsulta oso sendo dabil, fisioterapiaren eskaintza zabala duten Iruñea eta Tolosa bezalako lekuetatik joaten zaie jendea... “Oso urte ona izan da...”, hasi da Borja, “...eta gustuko duguna egiten dugu”, gaineratu du Andonik.

Kirolari asko hurreratzen bazaizkie ere, argi utzi nahi izan dute errealitate askotarikoak dituzten pertsonak artatzen dituztela. “Edozein pertsona izan dezake kirolari batek duen lesio bera. Zurgin edo fabrika batean lan egiten duen pertsona batek, palelean edo tenisean dabilen batek duen arazo bera izan ahal du. Eta modu berean tratatzen da”, azaldu du Borjak. Edonola ere, Andonik zehaztu

“Edozein pertsona izan dezake kirolari batek duen lesio bera”

Borja Oreja

“Gustuko duguna egiten dugu”

Andoni Ayerdi

nahi izan duen moduan, prozesua pertsona horien errealitateetara egokitu behar da.

Egokitzeaz ere badakite zerbait. Eten-gabean dabilta berme zientifikoa duten teknika berrietan trebatzen eta teknologiak eskaintzen dituen aurrerapenak berenganatzen. Osteopatia estrukturala ere ikasi zuen Borjak, zeinak gorputza ulertzeko ikuspegia zabaldu dion.

CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri ☎ 616 457 540
 📧 construccionesganarbe@gmail.com ☎ 636 827 846

LAN ESKAINTZAK

Cederna-Garalur Elkarteak Mendialdea eskualdean industria eta energia dinamizatzailea behar du

Aldi baterako kontratua, mugagabe bilaka daitekeena.

Lanposturako gutxieneko baldintzak:

- ▶ Ingeniaritzan edo ekonomian formakuntza edukitzea.
- ▶ Euskara C1 titulua edukitzea.
- ▶ B1 gida-baimena eta autoa.

Baloratuko da enpresa kudeaketan eta dinamizazio prozesuekin eskarmentua izatea.

CVak, hizkuntza-titulazioaren kopia konpultsatuak eta lanbide-bizitzaren ziurtagiria info@cederna.es helbidera bidali beharko dira "MENDIALDEKO INDUSTRIA ETA ENERGIA DINAMIZATZAILEA" izenburupean.

Epea uztailaren 13an bukatuko da, 14:00etan.

Argibide gehiago cederna.eu/eus webgunean edo 948 20 66 97 telefono-zenbakian.



Beti Kozkorrek futbol entrenatzaileak bilatzen ditu

Beti Kozkor futbol talde lekunberriarrak entrenatzaileak behar ditu nesken eta mutilen taldeetan hurrengo denboraldirako.

Klubarekin eta bere baloreekin konpromisoa duten pertsonak behar dira.

Formaziorik izan ezean, klubak berak emango lieke; gehien baloratzen dena entrenatzaile jarduteko goinoa da.

Interesatuak harremanetan jar daitezke taldearekin betikozkor@betikozkor.com helbide elektronikoaren bitartez edo 665 715 356 eta 669 438 425 telefonoetara WhatsApp-a bidalita.



▶ AGENDA

UZTAILA

7-9- Azkarateko festak

14-16- Arribeko festak

21- Udanbizi txirringulari biraren azken etapa
(Etxarri-Aranatz-Lekunberri-Leitza)

22- Araizko Kablearen Eguna.

29-30- Astizko festak

*Festen egitarauak kontrazalean

ABUZTUA

4-7- Errazkingo festak

14-15- Uztegiko festak.

24-27- Gorritiko festak.

▶ MERKATU TXIKIA

SALGAI

▶ Leitza 85m²-ko pisua salgai zaharberitzeko. sukalde-jangela, egongela, komuna eta 3 logela bere armairuekin, balkoia eta ganbaran 8m²-ko trastelekua. Igogailua ere badauka. TLF 660 869 501

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE 
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldeia 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA
www.martillotxiki.com
679 938 016

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20
Lekunberri
urzubi@hotmail.com

 **NEKAZARI, S.L.**
 
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.:948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com
 

 **SOTIL GARAJEA**
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

**aitz
berri**
edertasun
zentroa
Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com
Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpai-
netan
Mikroblading bekainetan

AZKARATE

Uztailak 7, ostirala

11:00 Txupinazoa eta meza ermitan
Ondoren Abilezia jolasak Agurtzane eta Ion Elustondo trikitilariekin
14:00 Bertso bazkaria Xebastian Lizaso eta Iker Zubeldiarekin.
18:30 Araitz-Beteluko dantzari txikiak
19:30-21:30 Trikitilariak (bitartean parrillada)
Ondoren DJ Arki

Uztailak 8, larunbata

11:00 Ume jolasak
13:00 Puskabiltza (Astiasaran II Andonegi trikitilariekin)
21:30 Herri Afaría
00:30 Eingo musika taldea
03:30 Sillajokua
Ondoren DJ Mallozar

Uztailak 9, igandea

18:00 Duatloi prueba berezia (Ibai Soroa eta Eneko Saralegi) eta Kañamarekin motozerra erakustaldia
Ondoren Tortilla eta postre lehiaketa
19:30 Sagardo dastaketa Festen amaiera trikitilariekin (Estangatarrak)

*Bertso bazkariko txartelak, egunean bertan salgai. Apariko txartelak surtidorean salgai.

ARRIBE

Uztailak 14, ostirala

18:00 Herri kirolak. Ibai Soroa eta Txomin Amundarain.
20:13 Txupinazoa. Ondoren poteoa, musikaz alaiturik
21:30 Herri Afaría plazan. Katerina edo Autogestionatua
00:30 Dantzaldia Laiotz-en eskutik
04:00 DJ Elorri goizalderarte

Uztailak 15, larunbata

11:45 Ezkilen jotzea
12:00 Puskabiltza herri osoan zehar
18:00 Bailarako haurren dantza emanaldia (ondoren ume jolasak. Puzgarriak egun osoan zehar)
23:30 Elektrotxufia elektrotxaranga herrian zehar
02:00 Milan&Rivera DJ-ak

Uztailak 16, igandea

09:00 Goiz soinua
12:00 Meza. Ondoren XI. tortilla patata lehiaketa eta hamaiketakoa
17:00 Gazteen pilota partiduak frontoian
19:00 Aurrera dantza taldea
20:30 Trikipoteoa. Maialen Larrañaga eta Ane Urbietaren eskutik

*Ostiraleko afarirako txarel guztiak Surtidorean eta Arribeko dendan salgai.

ASTITZ

Uztailak 29, larunbata

12:00 Erronda etxex trikitilariekin
17:00 Mus txapelketa
17:30 Helduentzako jolasak eta musika arratsaldean zehar
22:00 Herri afaria
00:30 "Sabotaje" taldearen kontzertua
02:00 DJ Hiru Hirukiak

Uztailak 30, igandea

12:00 Mutil eta nesken pilota partiduak
17:30 Zurgai Herriko Kriol erakustaldia
18:00 Mus txapelketaren finala
19:00 "Luziano"-ren kontzertua

ERRAZKIN

Abuztuak 4, ostirala

17:00 Pesten hasiera suziria eta Herri brindisarekin.
17:30 Bailarako dantzari gazteen emanaldia.
18:30 Puskabiltza
00:30 Dantzaldia "Bide Batez" taldearekin.
Ondoren DJ basakaitz goizalderarte.

Abuztuak 5, larunbata

12:00 Puskabiltza.
17:30 Haur eta gaztetxoentzat Txalparta Tailerra.
18:00 Ume Jokoak.
20:00 dantzaldia "Gabezín" taldearekin.
21:30 Afari autogestionatua.
00:30 dantzaldia "Gabezín" taldearekin.
Atsedendian Mozkorlinpiadak.
Ondoren DJ Kastabal goizaldera arte.

Abuztuak 6, igandea

09:00 Dianak.
11:00 Meza nagusia.
11:30 Ume eta gazteen arteko pilota partidak.
18:00 Herri Kirol saioa: aizkora apustua eta harri jasotze saioa.
19:30 Patata tortilla lehiaketa.
20:00 Barrikote Herrikoia.

Abuztuak 7, astelehena

14:00 Zikero jatea.
/Txartelak komisioko jendeari eskatu.
Txartelak agortu arte.
17:00 Mus txapelketa.
20:00 Festen amaiera.

UZTEGI

Abuztuaren 14an

11:30 Txupinazoa eta puska biltza hasiera
20:30 Presoen aldeko brindisa
21:00 Herri afaria
23:15 Andoni Oilokiegi

Abuztuaren 15ean

Goizean meza nagusia
Herri kirolak
Toka
Arratsaldean
Ume jolasak
Araitz-Beteluko dantza emanaldia
Bailarako sagardo eta pintxo dastaketa

GORRITI

Abuztuak 24, osteguna

10:00 Ezkila-jotzea
11:00 Meza
11:00 Haize-Txulo elkartearen gosaria, eta, ondoren, puska biltzea Iñaki eta Imanolekin

Abuztuak 25, ostirala

11:00 Herri krosa
14:30 Herri bazkaria. Ondoren, Beñat Mitxelena soinu-jolea
21:30 Herri afari autogestionatua
00:00 Trikititeens taldea

Abuztuak 26, larunbata

11:00 Ume jokoak
17:00 Pilota partidak
1. partida, pala:
I.Garziarena-S.Berekoetxea
M.Eguzkiza-N.Otxoa
2. partida, eskuz binaka kadeteak:
A.Olleta-O.Eskudero
I.Ijurko-E.Oreja
3. partida, eskuz binaka nagusiak:
U.Astiz-A.Apezetxea
J.Alberdi-A.Alduntzin
21:30 Herri afaria Euskal Parrillarekin
23:30 Eingo taldea

Abuztuak 27, igandea

12:00 Herri kirolak. Aizkolariak: Eneko Saralegi-Nerea Arruti
Ibai Soroa-Uxue Ansoerregi
Harriarekin: Inaxio Perurena
18:00 Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Saioa Alkaiza
Ondoren, sagardo eta pintxo dastatzea

